

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Iñaki Iriarte López jaunak Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

11/1997 Foru Legea hein batean aldatu zuen urriaren 21eko 14/2016 Foru Legearen zioen azalpenean hauxe adierazten zen: “Lege testu hau Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen ezarritako aurreikuspenekin bat dator eta, helburuen arabera plangintza sistema baten bitartez, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzun gogo die, generoaren ikuspuntua eta hurrengo baldintzak kontuan hartuta: administrazio erregistroen eta beste iturri batzuen ahalik eta kosturik txikiena eta aprobetxamendurik handiena, bikoiztasunak ekiditea, herritar, enpresa eta erakundeentzako eragozpenak gutxitzea eta sekretu estatistikoa nahiz informazio estatistikokoaren irisgarritasuna, lastertasuna eta eskuragarritasuna bermatzea”.

Horrenbestez, adierazpen horrek argi eta garbi agertzen zuen legegilearen borondatea, bai herritarren informazio beharrei erantzutekoa, bai sekretu estatistikoa nahiz informazio estatistikokoaren irisgarritasuna, lastertasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko. Horri jarraikiz, 4/2016 Foru Legearen azken xedapenetako lehenak 11/1997 Legearen 9. artikulua testua aldatu eta orain dagoen moduan utzi zuen.

Hala ere, aldaketa horrek ez zuen esplizitatu herritarrek eskubidea izan dezatela Nastatek eginiko inkestak eta estatistiken mikrodatuak eskuratzeko aukera, behar bezala babestu eta anonimizatuak. Fitxategi horiek aukera ematen diete interesdunei datuen ustiak eta analisiak egiteko, zabalkunde-modu estandarrek –taula, argitalpen eta txosten erakoak– ahalbidetzen ez dituenak.

Artikulu bakarra. Honela idatzita agertuko da 9. artikulua:

«9. artikulua. Estatistika ofizialen argitalpena.

Bat. Foru lege honen ondorioetarako, estatistika ofizialtzat hartuko dira Nafarroako Estatistika Planean sartutakoak eta Nafarroako Gobernuak onetsitakoak, foru lege honen 28. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Bi. Nafarroako Estatistika Institutuak edo beste edozein erakunde publiko edo pribatuk eginiko jardura estatistiko ororen emaitzak publikoak izanen dira, jardura diruz lagundua bada edo Institutuarekiko hitzarmen baten bidez egin bada, planean sartuta egon ala ez.

Hiru. Nafarroako Estatistika Institutuak mikrodatuak utzi beharko dizkio interesa izan eta haiek eskatzen dituen pertsona orori, behar bezala anonimizatu ondoren, bai eta emaitza estatistikokoak ere, edozein dela ere horien desagregazio-maila teknikoki zuzena, betiere ez bada sekretu estatistikokoaren aurkakoa».

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.